

FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresaren jarduerari dagokionez, gure lan handiena webgunea eguneratzea izango da. Gure lehentasuna webgunea interneten kokatzea izango da, eta behin hau lortuta dagoela, enpresaren jarduera nagusia webgunearen mantentze eta eguneratze lanak izango dira, kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduerak. Honetaz gain, euskarri tekniko bat egongo da erabiltzaileen esku, arazoak edo gatazkak konpontzeko. Ekoizpenari dagokionez, gure enpresak ez du ezer ez sortuko, bertan erregistratzen diren erabiltzaileek edukiko dute erantzukizun hori. Beraz, enpresaren funtsezko jarduerak arazoak konpontzera eta sareko jarduerak egitera mugatzen da.